

Kaixo!

Kepa Bordés Argoitia naiz, argazkilari afizionatua, eta egun desberdin hauetarako proposamen batekin nator, argazkigintzaren funtsak ikastea eta argazki mota ezberdinak etxean praktikan jartzea.

Batez ere kamera bat eduki (mugikor batzuekin baita, modu manualak izanez gero) eta berau nola dabilen ikasteko denborarik ez duzuenoi zuzenduta dago. Azalpen batzuen bidez, ulergaitzak izan ahal diren kamerako modu eta zenbaki horiek maneiatzen ikasteko aukera polita duzue.

Ez espero argazki ikusgarririk berehala. Hala ere, informazio hauei esker, berriro kalera irteten zaretenean jakingo duzue nola jokatu momentu bakoitzean, horrela, zuen argazkiak hobetuz eta emaitzen zergatia ulertuz.

Hasieran bideo bat egitea pentsatu nuen, baina ez dut nire burua "youtuber" bat bezala ikusten, gaur egun bideoak soberan daude Interneten. Beraz, dena idatziz eta euskaraz egingo dut, nahiz eta informazio gehigarria Interneten dagoen eta gaztelaniazko material ezberdinetara bideratuko dudana.

Kontutan hartu nire modura -eta ez zertan modurik onenera- azalduko ditudala gauzak, urte hauetan zehar hainbat laguni ta hurbilekoei azaldu didan bezala egingo dut. Lehenik teoriarekin (ez duzue kameraren beharrik, mesedez utzi alde batera!!!), eta ondoren etorriko da praktikan jartzeko ordua. Azalduko ditudan %95a baliozkoak direla bai argazkigintza digital zein analogikoan, gauza batzuk faltan somatuko dituzue noski, baina duten konplexutasuna direla eta ez ditut azalduko.



Lehenengo eta behin funtsa: argia, nola lortzen dugu argazki bateko argia?

Argirik gabe ez duqu argazkirik, gogoratu beti hau.

Argazkigintzan hasiberriontzat, hiru dira parametro nagusiak: Alde batetik diafragmaren irekidura eta obturagailuaren abiadura. Bi hauekin jolastuz lortuko ditugu gure argazkietan efektu ezberdinak. Eta bestaldetik ISO-a edo sentikortasuna da hirugarren parametroa.

1 - Diafragmaren irekidura

Gure objektiboak argia pasatzeko uzten duen espazioa da, eta "F/zenbaki bat" bezala adierazten da. Zenbakia gero eta handiagoa, zuloa geroago eta txikiagoa, nahiz ta kontrakoa iruditu:



Irudiaren jatorria: www.dzoom.org

Irekidura ezberdinak erabiltzeak, sartzen uzten dugun argi kopuruaz gainera, efektu ezberdinak eragingo ditu gure argazkian:

Irekidura haundiak (F/zenbaki txikiak):

Fokuratze selektibo bat egingo dute. Hau da, fokuratuta duzuenak bakarrik ikusiko dugu ondo, beste dena desfokuratuta ("bokeh" efektuaz) irtengo zaizue, erretratu efektua lortuz. Irekiera haundietan ez da erraza nahi duguna fokuratzea, kontuz horrekin. Eta, irekiera haundiko objektiboek prezioz gora egin ohi dute.




Erdi bitarteko irekidurak (F/8-11):

Askok "puntu goxo" bezala definitzen dituzte. Objektuotan definizio haundiena ematen duten irekierak dira eta argazkiko objektu gehienak fokuratu genitzake. Paisaietako argazkitan edo estudioko argazkitan erabilia batik bat lortzen den definizioagatik.

Irekidura txikiak (F/zenbaki haundiak):

Fokuratzea ia totala da, eta argazkian sartzen ditugun elementu ia denak fokuratuta agertuko dira, baina kalitatea galduko dugu. Hortaz gain arazo ezberdinak agertu litezke (errefrakzioa). Ez dira gomendatzen beharrezkoak ez badira. Batik bat argietan izar efektua lortzeko edo argi asko dugunean esposizio luzeetarako erabiltzen dira.



Irudiaren jatorria: www.dzoom.org

Informazio gehiago: <https://www.dzoom.org/es/la-apertura-del-diafragma-en-fotografia-entiende-de-una-vez-por-todas-sus-implicaciones/>

2 - Obturagailuaren abiadura

Honekin kontrolatuko duguna zera da: zenbat denboraz utziko dugun zabalik gure kamera, diafragma pasatzen uzten duen argia jasotzeko. Abiadura hau S letraz edo komatxo batez badoa atzetik, segundoak direla esan nahi du, hau da, 15s edo 15" segundoak dira.

Baina zenbakietan komatxo edo S letra ez badago, adibidez 100, honek esan nahi du denbora 1/100 segundo direla. Kamera batzuetan zatiki bezala ikusten da, baina beste batzuetan zatikatzailea bakarrik ikusten da. Beraz $1/100 = 0.01$ segundo.

Abiadura eskala adibide bat jarraian, 2 segundotik 1/1000 edo berdina den 0,001 segundora:



Abiadura ezberdinak erabiliz efektu ezberdinak lortu ditzakegu:

Abiadura arinak (1/500 eta txikiagoak):

Batez ere mugimenduan dauden objektuak estatiko agertzea nahi dugunean erabiltzen da, kirolean batez ere. Zergatik? Argazkia ateratzen egon garen denboran objektua mugitu egin delako eta kamera finko dagoelako.



Erdi bitarteko abiadurak: (1/60-1/500):

Edozein momentutarako erabilgarriak dira, mugimendu azkarreko elementurik ez badago argazkian, eta egongo balitz inporta ez zaigulako mugituta irtetea. Kontutan hartu 1/60 jada 0,017 segundo direla, guretzat ez dela ezer, baina pultsu edo kondizio on bat ez badugu argazkia mugituta irten liteke.

Bakoitzak probatu beharko du zein den bere muga! Pultsu ona izan ezker 1/8 ra ere heltzea ez da zaila, baina momentuko presekin ez da erraza.

Abiadura geldoak (1/20 edo gehiago):

Esposizio luzeagoak egin ezkerro, mugimenduan dauden objektuek emango digute joko. Adibidez, ur jauzi baten urak, kotxe baten argien estelak, eta abar.

Kontutan hartu kamera geldi egon behar dela, beraz nonbait finkatu edo tripode baten laguntza beharko duzue, bestela argazkia mugituta irtengo zaizue.



Baita erabili daitezke abiadura efektua emateko argazkiei, zuk kamera geldi izanik baina zu mugimenduan, edo eta mugimenduan dagoen elementu bati jarraipena eginez, azken teknika honi ingelesez “panning” deritzo edo gaztelaniaz “barrido”.



Normalean kamerek 30 segundo izaten dute gehiegizko bezala, eta ondoren BULB aukera ematen dute, baina zer da BULB?

BULB aukera honekin zuk nahi beste denboraz atera dezakezu argazkia; sakatu botoiari eta askatu arte argia jasotzen egongo da gure kamera.


4 minutuko argazki bat egiteko ez da beharrezkoa 4 minutuz atzamarra apurtzen egotea erlojua begiratzan zauden bitartean, badaude horren ordez beste barne neurgailu edo aparatu ezberdin batzuk, baina momentuz 30s-kin nahikoa dugu.

Informazio gehiago: <https://www.dzoom.org.es/para-que-sirve-la-velocidad-de-obturacion/>

Bi parametro nagusi hauetaz gain badago beste hirugarren bat, ISO-a deritzona, sentikortasuna.

3 - ISO

ISO-arekin, gure kamerak argiarekiko duen sentikortasuna aldatzen uzten digu. ISO-a handitzen badugu, argi kopuru berarekin gure argazkia argiagoa izango da. Baina kontrari, ISO-a larregi igotzeak zarata deritzon efektu bat sortzen du argazkian, grano efektu bat bezala sortuz. Beraz, noiz erabili kontrolatu beharko dugu, eta gure kameraren mugak zeintzuk diren ezagutu beharko dugu.



Normalean, kamera gero eta hobeek, ISO altuetan zarata gutxiago izaten dute.

Kamera gehienetan ISO 100 da balore lehenetsia.

Noiz igo?

- Adibidez, diafragma ahal beste zabalik edo nahi dugun posizioan izanda, obturagailua gure pulsuaren mugako abiaduran ipini eta hala ere argazkia ilun irtetea. Orduan izango da erabilgarria ISO-a igotzea, behar dugun argia lortzeko.
- Gaez izarrak ateratzeko guztiz beharrezkoa da, baina hori beste egun baterako.

Informazio gehiago: <https://www.dzoom.org.es/sensibilidad-iso-que-es-y-como-funciona/>


Azaldu dudan txapa dena irudi bitartez hobeto ulertzen delako, hemen irudi simple baina ulerkor bat:



Irudiaren jatorria: www.blogdelfotografo.com

Ikusten duzuen moduan hiru parametro hauekin jolastu beharko dugu efektu ezberdinak lortzeko, baina baita gure kamerara zenbat argi sartzen den kontrolatzeko!

Argi larregi jaso ezker argazkia erreko zaigu eta zuriegi irtengo da, eta alderantziz, argi gutxiegi jaso ezker ilun irtengo zaigu. Argazki bera erreta edo ilun:



Nola jakin hau, argazkia atera orduko?

Lasai, kamera digitalak aurreratuak dira eta txibato polit bat dute (esposimetroa), non kamera berak esaten dizun argiz ondo zabilizan edo ez, aurrez ikusitako hiru parametro hauek aldatzen zoazen heinean.

Horrelako zerbait izaten da:



Erdian ageri den marka ezker aldean badago (balore negatiboetan) argazkia ilun irtengo zaigula esaten digu kamerak. Eskuman egongo balitz (balore positiboetan) argazkia argi larregi dagoela eta erreta irtengo zaigula esaten digu.

Erdian jarri ezker:




Kontutan hartu kalkulu hau kamerak berak duen argi sentsore baten bidez egiten dela, eta beti gutxi gorabeherakoa dela, laguntzeko.

Oso ohiko da aurrez ikusi ditugun 3 parametro hauek hiruki batez irudikatzea, baina geometria gustuko ez baduzue niri asko gustatzen zaidan ur edalontziaren simila azalduko dut irekidura eta abiadura behingoz ulertu dezazuen.

Azken batean imajinatu edalontzi bat dugula (gure kamera), nun urez (argiz) goraino bete behar dugun gure egarria asetzeko (kopuru egokia, esposimetroa erdian). Ez bagara goraino heltzen egarriarekin geldituko gara (argazki iluna), eta pasatu ezkerreko gainezka egingo digu (argazki errea).

Beraz iturriaren indarra (diafragmaren irekidura) eta zenbat denbora uzten dugun zabalik (obturagailuaren abiadura) izango dira gure bi faktoreak. Eta guk aukeratuko dugu bi hauen arteko jokoak zein nahi dugun izatea beti ere edalontzia betetzeko:



Dena dela, kamera erabiltzen hasi orduko instrukzioak irakurri!

Paperetan ez badituzue, Interneten seguru topatu ahal izango dituzuela digitalki.

Tontokeria bat badirudi ere, modelo bakoitzak bere menu eta aukerak ditu, eta oso lagungarri izango zaizue ondoren azalduko dudana konprobatzeko.

Orain bai, hartu kamerak eskuan!

Kamerak normalean dituen modu bereziak azalduko ditut, eta ze argazki mota egin ditzakegun bakoitzarekin:

- A/Auto (Automatiko) edo paisaia/erretratu/kirol/etabar (Scene) moduak.

Kamerak berak konfiguratuta dituen moduak dira eta momentuan berak uste duen aukerarik onena hartzen du.

Batzuetan asmatzen du, baina beste batzuetan ez. Kamerak, adibidez, ez daki zein den korrikan datorrenaren abiadura edo gure pultsuaren muga. Horregatik beti ezin du asmatu.

- A/AV (Diafragmaren irekiduran lehentasuna)

Nik gehien erabiltzen dudana da. Kasu honetan guk aukeratzen dugu nahi dugun diafragma irekidura, eta horren funtsean kamerak aukeratzen du guregatik abiadura. Zergatik diot nik gehien erabiltzen dudana dela?

Ba azkenean egunean zehar argi nahikoa izaten dugulako. Beraz, abiadura ez da arazo bat, ze diafragmaren irekidura edozein izanda ere, abiadura nahikoa dugu pultsiz argazkia botatzeko. Horrela behar dugun irekidura ezarri dezakegu nahi dugun efektua lortzeko.

- S/TV (Abiaduran lehentasuna)

Gutxitan erabiltzen dut, baina batzuetan beharrezkoa da. Egin nahi duzun argazkian, nahi duzun efektua lortzeko abiadura konkretu bat behar baduzu, abiadura hori aukeratu eta automatikoki kamerak jarriko dizu diafragmaren irekidura.

- M (Manuala, eskuz dena)

Kasu honetan zuk jartzen dituzu eskuz parametro denak, eta esposimetroan (txibatoan) fijatu beharko zara argi kopuru egokia duzun edo ez jakiteko.

Zertarako? Oso erabilgarria da filtro fisikoak erabiltzen ditugunean, gaueko argazkietan edo 30s-tik gorako argazkietan, non kameraren argi kalkulua ez den zehatza izaten.

Zuen kamerarekin eta manualarekin kontrastatu aukera hauek, kamera batetik bestera izenak aldatu ahal daitezkeelako.

Datu garrantzitsu bat: nahiz eta etxe barruan argia piztu, eguzkiaren argiak ez du zerikusirik artifizialarekin. Argi naturalak askoz ere potentzia haundiagoa dauka. Beraz, praktikatzeko, saiatu argi naturala sartzen zaizuen leku batean. Bestelakoan, ISO-aren laguntzarekin jolastu beharko duzue etxe barruan.

ARIKETAK

Hemen ariketa batzuk guzti hau praktikan jartzeko eta zuek zeuk ikusteko efektuak:

Ariketa 1 (Etxean):

Diafragmarekin jolastuz (F zenbakia), objektu bat fokuratu eta beste bat atzean jarri distantzia batera. Argazkiak atera, eta ikusiko duzue nola atzerago edo aurrerago (plano ezberdinetan) dauden objektuak noiz dauden enfokatuta eta noiz ez.

Adibidea:




Argazkien jatorria: www.javiersomoza.com

Ariketa 2 (Gauzez-Kalerantz):

Kalerako bista izanez gero, gauzez diafragma guztiz itxi (f/22 adibidez) eta argazki bat egin. Oso leku gutxi utzi diogu argiari pasatzeko, beraz denbora altua izan beharko da behar dugun argi kopurua kamerara heltzeko. Ondorioz, leku finkoren baten utzi beharko dugu, tripode bat ez badugu behintzat.

Objektiboak dituen "palen" eraginez, farolen argiak izar forma hartuko duela ikusiko dugu. Objektibo baten "palen" forma eta argiak hartzen duen traza:



Adibidea:



 $f/22.0$  19.0 mm
 87  ISO 100

Argazkia nirea da eta hemen ikusgai osorik:

<https://flic.kr/p/drdNJ6>

Ariketa 3 (Etxean):

Mugimenduan dagoen zerbaiti argazki bat atera abiadura ezberdinekin, konprobatzeko nola mugimenduak efektu ezberdinak ematen dituen.

Adibideak (kasu hauetan ISO-a igo da, etxe barruan argi gutxi egonda, abiadura denbora txikitzen sartzen den argiarekin soilik ez zelako nahiko):



2 Irudien jatorriak: www.dzoom.org

Ariketa 4 (Gauetz-Kalerantz):

Etiket errepidea ikustea beharko dugu, zertarako? Autoek uzten duten argi arrastoa jasotzeko. Leku finko baten jarriko dugu kamera, tripode edo ahal denarekin lagunduta, hau ezinbestekoa da ariketa honetarako.

Diafragma ahalik eta gehien itxiko dugu eta 20 segundoko abiaduraz argazki bat egingo dugu. Emaiza oso ilun irten ezker, denbora gehiago jarri genezake, irekidura zabaldu (baina bigarren ariketako farolen argien izar forma galduko genuke) edo ISO-a igo.

Aldiz argazkian argi larregi badugu denbora laburtu beharko dugu, ISO minimoa eta irekidura jadanik minimoan badugu.

Noski, argazkiak irauten duen denboran autorik pasatzen ez bada ezta argi arrastorik ikusiko!!!

Adibideak:



Ariketa gehiago jarri ahalko nituzke, baina momentuz trebatu hauekin eta ondoren zuen imajinazioa landu, denbora baduzue eta! ;-)

Zerbait ikasi duzuelakoan, eskerrik asko!

Hemen aukera gehiago, aurrekoekin gutxi izan baduzue:

-Ariketa gehiago etxean lantzeko:

<https://www.theimagen.com/10-tematicas-para-practicar-fotografia-en-casa-y-crear-interesantes-imagenes/>

- Kamerako aukeretatik at beste efektu batzuk lortzeko:

https://www.youtube.com/watch?v=UdNNJia5V_s

AH!!! Ez gogogabetu argazkiak politak ez badira. Nik 2010ean erosi nuen lehenengo kamera eta berdin hasi nintzen, nire lehenengo argazkiak etxean eginez:

